



HAURREN ETA NERABEEN ESKUBIDEETAN

AURRERA EGIN: 2023-2027

2023ko udal eta foru hauteskundeetarako proposamenak

“Hurtzarroan eta nerabezaroan inbertitzea funtsezkoa da egungo eta etorkizuneko euskal belaunaldien garapen iraunkorrerako”

Erakunde publikoek haurren eta nerabeen bizitza hobetzeko neurriak hartzeko betebeharra dute, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak 4. artikuluan zehazten duenaren arabera. Haur eta nerabe bakoitzak BERE ESKUBIDE GUZTIAK bermatuak izateko eskubidea du.

Erakunde publikoek, gizarte eragileek eta, oro har, gizarte osoak haurren babesean eta garapenean laguntzeko erantzukizuna dute.

Haur eta nerabeen eskubideen eta ongizatearen babesak tokiko eta lurraldeko politika publikoetan funtsezko lekua izan behar du, inor atzean utzi gabe.

Tokiko erakundeak herritarrengandik hurbilen dauden administrazioak dira eta funtsezko eskumena dute prebentzioaren arloan. Hartara, haurren eskubideak babesteko erantzukizuna dute, bai eta haien bizikidetzaren espazioak eta zerbitzuak haurren eta nerabeen eskubide guztiak bermatzeko gune erreal bihurtzeko erantzukizuna ere.

Horregatik, **ASTIALDI SAREAK, EAPN Euskadik, Save the Children Euskadik eta UNICEF Euskal Herriko Batzordeak**, 2023ko udal eta foru hauteskundeetan esparruan, alderdi politikoei eta, oro har, herritarrei **10 lehentasun** helarazi nahi dizkiegu. Lehentasun horiek **kontuan hartu behar dira auzo, udalerrri eta lurralde bakoitzeko programetan eta hauteskundeetan ondoren eratuko den gobernuaren garapenean.**

1. **Haurrak eta nerabeak lehentasunezko ardatza izan behar dute foru eta udal gobernuen proposamenetan;** izan ere, haurrentzat gizarte hobeak diseinatuta, gizartea hobetzen dugu guztiontzat.
2. **Familien eta haurren aldeko Euskal Ituna errealitate bihurtu:** baliabideak erraztu eta erakundeen arteko eta diziplina anitzeko lankidetzaren bermatu beharra dago, haurren eta familien politiken gobernantza hobetzeko.
3. **Haurren eta nerabeen benetako egoera aztertu eta ezagutu,** bereziki, egoera zaugarrietan dauden haur eta nerabeen egoera. Horretarako, **haurren eskubideak defendatzeko udal eta lurralde estrategia bat egokitu beharra dago;** hain zuzen ere, diagnostikoa, misioa, ikuspegia eta artikulazio operatiboa bateratzen dituen estrategia, plangintza, jarraipena eta ebaluazio fisikoa barne.



4. **Haurrek eta nerabeek** tokiko erabakietan, eragiten dieten gai guztietan eta elkarreragiten duten eremu guztietan **parte har dezaten bultzatu**, herritar aktibo eta eskubide osokoak diren aldetik.
5. **Seme-alaba adingabeak ardurapean dituzten familia ahulenek, batez ere guraso bakarreko familiek, jasotzen dituzten larrialdietarako gizarte-laguntzak indartu eta erraztu.** Familien tainaren eta baldintzen arabera, **etxebizitza eta/edo bizitoki alternatiba duinak eskaini**, jolasteko, mugitzeko eta sozializatzeko espazio amankomunekin.
6. **Haurren eta gazteen osasun mentalari arreta jarriko dioten baliabideak eskaini** eta familiei baliabideak eman **gurasotasun positiboa** sustatzeko. Eskola uzteko arriskua, desgaitasuna edo arrakala digitala duten haur eta nerabeentzako hezkuntza-programak indartu.
7. **Haurrei, nerabeei eta familiei laguntzeko gizarte eta hezkuntza baliabideak antolatu auzo eta udalerrri guztietan**, batez ere, egoera zaurgarrietan daudenei zuzenduta, bitartekaritzarako, gatazken kudeaketarako eta aniztasunerako laguntzak eman. Eta **babeguneak** sortu, haurrek eta nerabeek indarkeria mota guztien aurkako babesa izan dezaten.
8. **Hiri plangintzan eta mugikortasun estrategietan haurtzaroaren eta iraunkortasunaren ikuspegia txertatu.** Ingurumena zaintzea eta errespetatzea, guner berde, osasungarri eta kutsadurarik gabekoetara iritsi eta aire zabaleko eta naturako jarduerak garatu.
9. **Zerga sistema aztertu eta haren eraginkortasuna hobetu. Horretarako**, erreforma bat egitea ezinbestekoa da, sistema hori progresiboagoa egiteko, desberdintasuna murrizteko eta pobrezia aurre egiteko. Hartara, aukera ona da hazkuntzarako laguntza unibertsal bat sartzeko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan (PFEZ) **dedukzio fiskal itzulgarrien bidez**.
10. **Haurtzaroan eta nerabeentzako inbertsio nahikoa, inklusiboa eta eraginkorra egin. Horretarako, gobernuko arlo guztiak haurren eskubideen sustapenean inplikatu behar dira** eta haur eta nerabeentzako politiken eta programen gobernantza udal eta foru egituran modu nabarmenean kokatu; eragileen batasuna, zeharkakotasuna, koordinazioa, koherentzia, indarguneak eta parte hartzea ziurtatzeko, plangintzan, baliabide-hornikuntzan, garapenean, jarraipenean eta ebaluazioan.

Neurri horiek herritar guztiengana eta haien beharretara hurbiltzen gaituzte, eta haurrak erdigunean jarriko dituen estrategia bat izatea ahalbidetuko digute.

10 lehentasun, haur, nerabe eta familien politika publikoak indartzeko balioko dutenak, paradigma eta eredu berriekin, euskal haurren eta nerabeen eskubideak bermatuko dituzten esku hartzeen garapena erraztuz.